| | |
|---|---|
| **EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO BATZORDEKO BATZORDEBURUAREN KOMUNIKAZIOA, AIPATUTAKO BATZORDEAK JAKINARAZI BEHARREKO PLANGINTZA ESPEDIENTEEI BURUZKOA.** | **COMUNICACIÓN DE LA PRESIDENTA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO A TODOS LOS MUNICIPIOS EN RELACIÓN CON LOS EXPEDIENTES DE PLANEAMIENTO A INFORMAR POR LA MENCIONADA COMISIÓN.** |
| **<u>I.- SARRERA.</u>** | **<u>I.- INTRODUCCIÓN.</u>** |
| 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, indarrean sartzearekin batera, hirigintza-antolamendurako planen eta bitartekoen kudeaketan udalek izango duten autonomia nabarmenki areagotzen da. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartzeko eskumena hartzen dutela udalek, betiere, 91.1 artikuluan ezartzen denaren arabera, 7.000 biztanletik gorako udalerriak badira. | La entrada en vigor de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo supone una extensión muy significativa de la autonomía municipal en la gestión de los planes e instrumentos de ordenación urbanística. En este sentido, destaca la competencia para la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana, que corresponde a los ayuntamientos en los municipios con población superior a los 7.000 habitantes, según establece el artículo 91.1. |
| Haatik, aipatutako Legearen 91. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazten denez, udal guztiek Plan Orokorra Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera bidaliko dute (EHLAB), azken horrek, hiru hilabeteko epean, dagokion txostena landu dezan. | No obstante, señalan los apartados 2 y 3 del artículo 91 de la Ley, que todos los ayuntamientos remitirán el Plan General a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (en adelante COTPV) para la emisión en el plazo de tres meses del preceptivo informe. |
| Hain zuzen, Legeak ezarritako epe laburra da Komunikazio hau idazteko arrazoia. Udalerriek erabiltzeko gida bat osatu nahi da, hartara, EHLABek jakinarazi beharreko espedienteak udalerriek osorik lantzeko. Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren espedienteak barne hartu behar duen dokumentazio guztia lantzeko, udalerriek egin beharreko lana errazteko, Lege berria betetzeko aurkeztu behar den dokumentazioa zehaztu da hurrengo paragrafoan. | Es precisamente el escaso plazo establecido por la Ley lo que ha motivado la redacción de la presente Comunicación, la cual pretende ser una guía para los municipios con el fin de que los expedientes que deban ser informados por la COTPV se remitan por aquéllos completos. De cara a facilitar la labor de los Ayuntamientos a la hora del cumplimiento a la documentación que debe contener un expediente de Plan General de Ordenación Urbana, se adjunta en el parágrafo siguiente una relación de la documentación que se estima necesaria para dar cumplimiento a |

| | |
|---|---|
| | la nueva Ley. |
| **II.- <u>PLANGINTZA OROKORREKO ESPEDIENTEEN EDUKIA:</u>** | **II.- <u>CONTENIDO DE LOS EXPEDIENTES DE PLANEAMIENTO GENERAL:</u>** |
| **A. ADMINISTRAZIO DOKUMENTAZIOA.** | **A. DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA.** |
| Administrazio-espedientearen kopia bat bidaliko da eta honako dokumentu hauek barne hartuko dira gutxienez: | Se remitirá copia del expediente administrativo compuesto como mínimo por los siguientes documentos: |
| <u>1.- Formulazioa eta aurretiko faseak (HLLko 90.1 eta 2 artikuluak).</u> | <u>1.- Formulación y fases previas (Art. 90.1 y 2 LSU) .</u> |
| **1.1. dok.-** Plan orokorra osatzeko eta idazteko udal-akordioa, herritarrek parte hartzeko programa batekin batera (108. art.). | **Doc. 1.1.-** Acuerdo municipal para la formulación y redacción del plan general acompañado de un programa de participación ciudadana (art. 108). |
| **1.2. dok.-** Eusko Jaurlaritzako eta dagokion Foru Aldundiko organoei –babes zibilaren, ingurumenaren, kultur ondarearen eta ingurune naturalaren esparruetan eskumenak dituztenak- kontuan hartu beharreko arriskuei, ingurumen-baldintzei, kultur ondarea babesteko baldintzei eta ingurune naturala babesteko baldintzei buruzko informazioa eskatzea. | **Doc. 1.2.-** Solicitud a los órganos del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral correspondiente con competencias sobre protección civil, el medio ambiente, el patrimonio cultural y el medio natural de información sobre riesgos existentes y los condicionantes medioambientales, de protección del patrimonio cultural y del medio natural que deban ser respetados. |
| **1.3. dok.-** *Udalerri arabarren* kasuan, dagokien udalerriko administrazio-batzarrei egindako txosten-eskaera, kontzejuen titulartasuneko zerbitzuen eta ondasunen antolamendurako kontuan hartu beharreko irizpideei jarraituz. | **Doc. 1.3.-** *Ayuntamientos Alaveses*, solicitud de informe a las juntas administrativas de su término municipal, en relación con los criterios a tener en cuenta en la ordenación de los servicios y bienes de titularidad concejil. |
| <u>2.- Aurrerapen-dokumentuaren fasea (HLLko 90.3 eta 4 art.).</u> | <u>2.- Fase del documento de Avance (Art. 90.3 y 4 LSU).</u> |
| **2.1. dok.-** Aurrerapena onartzeko eta jendaurrean jartzeko udal-akordioa. | **Doc. 2.1.-** Acuerdo municipal de aprobación y exposición pública del Avance. |
| **2.2. dok.-** Lurralde Historikoko aldizkarian dokumentua jendaurrean jarriko delako iragarkia. | **Doc. 2.2.-** Anuncio de la exposición pública en el boletín del territorio histórico. |

| | |
|---|---|
| **2.3. dok.-** Lurraldeko hedapen handiko egunkari batean edo gehiagotan argitaratzeko iragarkia. | **Doc. 2.3.-** Anuncio de la exposición pública en el diario o diarios de mayor difusión del territorio. |
| **2.4. dok.-** Aurrerapena inguruko udaletara bidaltzeko idazkia. | **Doc. 2.4.-** Escrito de remisión del avance a los ayuntamientos colindantes. |
| **2.5. dok.-** *Udalerri arabarren* kasuan, administrazio-batzarretara aurrerapena bidaltzeko idazkia. | **Doc. 2.5.-** En el caso de los *municipios alaveses*, escrito de remisión del avance a las juntas administrativas. |
| **2.6. dok.-** Plan orokorra idazteko oinarrian hartuko diren irizpideak eta helburuak zehazteko udal-akordioa. | **Doc. 2.6.-** Acuerdo municipal de adopción de criterios y objetivos que servirán de base para la redacción del plan general. |
| **2.7. dok.-** Ingurumen-inpaktuaren baterako azterketari dagokionez (IIBA), aurretiko txostena bidali beharko da eta, horrelakorik egiten ez bada, txostenaren eskaera (183/2003 Dekretuaren 17. art.). | **Doc. 2.7.-** Respecto al estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental (ECIA) deberá remitirse el correspondiente informe preliminar y, caso de su no emisión, la solicitud del mismo. (Art. 17 Decreto 183/2003) |
| **2.8. dok.-** Dagokionean, eskumeneko herri-administrazioen arloko txostenak, batez ere Kostaldeko (Kostaldeko Legearen 112. eta 117. art.) eta Aireportuetako (2591/1988 EDko 2. XG) eskumenak dituztenenak, eta, edozein kasutan, txostenaren eskaera. | **Doc. 2.8.-** En su caso, informes sectoriales de las administraciones públicas competentes, en especial de Costas (Arts. 112 y 117 de la Ley de Costas) y Aeropuertos( DA 2ª del RD 2591/1988) y, en cualquier caso, la solicitud de los mismos. |
| <u>3.- Hasierako onarpenaren fasea (HLLren 90.5 art.).</u> | <u>3.- Fase de aprobación inicial (Art. 90.5 LSU).</u> |
| **3.1. dok.-** Hasierako onarpenaren osoko akordioa. | **Doc. 3.1.-** Acuerdo plenario de aprobación inicial. |
| **3.2. dok.-** Lurralde historikoko aldizkarian argitaratzeko iragarkia. | **Doc. 3.2.-** Anuncio de la exposición pública en el boletín del territorio histórico. |
| **3.3. dok.-** Lurraldeko hedapen handiko egunkari batean edo gehiagotan argitaratzeko iragarkia. | **Doc. 3.3.-** Anuncio de la exposición pública en el diario o diarios de mayor difusión del territorio. |
| **3.4. dok.-** Hasierako onarpena arloko eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinarazteko idazkia. | **Doc. 3.4.-** Notificación de la aprobación inicial a las administraciones públicas con competencias sectoriales. |
| **3.5. dok.-** *Udalerri arabarren* kasuan, hasierako onarpena eman delako | **Doc. 3.5.-** En el caso de los *municipios alaveses*, notificación de la |

| | |
|---|---|
| jakinarazpena (administrazio-batzarretara bidali beharrekoa). | aprobación inicial a las juntas administrativas. |
| **3.6. dok.-** Hasierako onarpena dela eta aurkeztutako alegazio, iradokizun eta erreklamazioen idazkiak. | **Doc. 3.6.-** Escritos de alegaciones, sugerencias y reclamaciones a la aprobación inicial. |
| **3.7. dok.-** Aurkeztutako alegazioak ebazteko txostena. | **Doc. 3.7.-** Informe de resolución de las alegaciones planteadas. |
| **3.8. dok.-** Hala badagokio, eskumeneko administrazioen arloko txostenak, batez ere Errepide, Mendi, Nekazaritza, Defentsa, Telekomunikazioak, RENFE, Euskotren, eta abarren arloak; txostenik egin ezean, txostenak lantzeko eskaera. | **Doc. 3.8.-** En su caso, informes sectoriales de las administraciones públicas competentes, en especial de Carreteras, Montes, Agricultura, Defensa, Telecomunicaciones, RENFE, Euskotren, etc. y en caso de su no emisión, la solicitud de los mismos si procede. |
| <u>4.- Behin-behineko onarpen-fasea (HLLko 90.6 eta 7 art.)</u> | <u>4.- Fase de aprobación provisional Art. 90.6 y 7 LSU).</u> |
| **4.1. dok.-** Behin-behineko onarpenaren osoko akordioa. | **Doc. 4.1.-** Acuerdo plenario de aprobación provisional. |
| **4.2. dok.-** *Udalerri arabarren* kasuan, behin-behineko onarpena eman delako jakinarazpena (administrazio-batzarretara bidali beharrekoa). | **Doc. 4.2.-** En el caso de los *municipios alaveses*, notificación de la aprobación provisional a las juntas administrativas. |
| **4.3. dok.-** Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren (IIBE) behin betiko txostenaren eskaera. | **Doc. 4.3.-** Solicitud del informe definitivo de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental (ECIA). |
| **<u>B.- DOKUMENTAZIO TEKNIKOA.</u>** | **<u>B.- DOCUMENTACIÓN TÉCNICA.</u>** |
| Plan orokorren edukia ondoren adierazitako dokumentuen bidez formalizatu beharko da: | El contenido de los planes generales se formalizará con carácter mínimo en los siguientes documentos: |
| **B.1. dok.-** Aurrerapen-dokumentua. | **Doc. B.1.-** Documento de Avance. |
| **B.2. dok.-** Hasierako onarpenaren dokumentua. | **Doc. B.2:-** Documento de aprobación inicial. |
| **B.3. dok.-** Behin-behineko onarpenaren dokumentua. | **Doc. B.3.-** Documento de aprobación provisional. |
| **B.4. dok.-** Ingurumen Inpaktuaren | **Doc. B.4.-** Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental. |

| | |
|---|---|
| Baterako Ebaluazioaren azterketa. | |
| Edozein modutan, Legearen 62. artikuluan eskatzen den dokumentazioa barne hartu beharko da planean (memoriak, planoak, bideragarritasun-azterketa, eta abar). | En todo caso, el plan deberá contener la documentación exigida por el artículo 62 de la Ley (memorias, planos, estudio de viabilidad, etc.). |
| **III.- PLANGINTZA OROKORRA *ALDATZEKO* ESPEDIENTEEN EDUKIA, *AURRERAPENIK* EZ DUTENAK.** | **III.- CONTENIDO DE LOS *EXPEDIENTES DE MODIFICACIÓN* DEL PLANEAMIENTO GENERAL QUE *NO CONTUVIERAN AVANCE*.** |
| Legearen 104. artikuluaren c) hizkian adierazitakoaren arabera, aukerazkoa da aurrerapena izapidetzea plangintza orokorrean egiten diren aldaketen kasuan. Kasu horretan, hirigintza-espedientearen edukia berdina izango da, aurrerapen-fasean eskatutako dokumentuen kasuan izan ezik, hau da, 2.1 eta 2.6ra bitarteko dokumentuetan izan ezik. Haatik, 2.7 eta 2.8 dokumentuak bidali beharko dira nahitaez, hau da, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren (IIBE) azterketaren hasierako txostena edo txosten horren eskaera, eta Kostaldeko eta Aireportuetako arloko txostenak edo horien eskaera hala badagokio. Halaber, IIBEren behin-betiko txostenaren eskaera aurkeztuko da hala badagokio. | De acuerdo con lo establecido en el artículo 104, letra c) de la Ley, la tramitación del avance será optativa en las modificaciones del planeamiento general. En estos casos, el contenido del expediente urbanístico será el mismo que el de la elaboración del mismo, a excepción de los documentos requeridos en la fase de avance, esto es, los documentos numerados del 2.1. al 2.6. Sin embargo, será necesaria la remisión de los documentos numerados 2.7. y 2.8, es decir, el informe preliminar del estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental (ECIA) o la solicitud del mismo, y los informes sectoriales de Costas y Aeropuertos o la solicitud de los mismos, en su caso. Asi como, en el caso de que proceda, se presentará la solicitud del informe definitivo de ECIA. |
| **IV.- ALE KOPURUA.** | **IV.- NÚMERO DE EJEMPLARES.** |
| Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera bidaliko dira, behin-behinean onartutako dokumentu teknikoari dagokionez, **behar den bezala egindako bi (2) ale**, paperezko formatuan, eta beste bi (2) euskarri informatikoan. | Se remitirán a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, **dos (2) ejemplares debidamente diligenciados** en formato papel y otros dos (2) en soporte informático, al menos del documento técnico de aprobación provisional. |
| Bi (2) ale bidaltzeko erabakia hartu da, batez ere Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako sail desberdinek luzatutako txostenek sortutako beharrei erantzuteko. | La consideración de dos (2) como el número de ejemplares a remitir se debe a las necesidades derivadas de la emisión de informes de los diversos Departamentos del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales. |

| **V.- BEHIN BETIKO ONARTUTAKO DOKUMENTUA BIDALTZEA.** | **V.- REMISIÓN DEL DOCUMENTO APROBADO DEFINITIVAMENTE.** |
|---|---|
| Legearen 89.4 artikuluan Plangintzako Euskal Erregistroaren ildotik ezarritakoa betetzeko, behin betiko onartutako dokumentuari dagokionez behar den bezala egindako ale bat (1) bidaliko da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailera, eta beste ale bat (1) Foru Aldundietan dagokion sailera. | En aras a dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 89.4 de la Ley respecto al Registro Vasco de Planeamiento, se remitira un (1) ejemplar debidamente diligenciado del documento aprobado definitivamente al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, y otro (1) ejemplar al departamento correspondiente de las Diputaciones Forales. |
| Vitoria-Gasteizen, 2006ko irailaren 25ean | En Vitoria-Gasteiz, a 25 de septiembre de 2006 |

EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO BATZORDEKO BATZORDEBURUA
LA PRESIDENTA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

Fdo.: Esther LARRAÑAGA GALDOS: Izpta.